



ESKEAN KRISTÖ

“**Radiobenta**” intentsitate altuko blues elektrikoak zabaltzen du sarraila. Detroit-eko *high energy*a antzeman daiteke gitarra kolpeetan, eta 1990eko hamarkadako rock&roll eskandinaviarren zantzuak. *Eskean Kristö* gustura mugitu izan da beti koordinada horietan. Irrati formulak ez dituzte maite gitarra zorrotzak eta anplifikadore herdoilduak.

Duela urte t’erdi, nire herrian, Lemoan, Gaztetxearen 15. urteurreneko jaialdia egin genuen. Kontzertuak zeuden programatuta iluntzerako: *Doctor Deseo*, *Willis Drummond* eta Arratiako bertako talde bat, *Eskean Kristö* izenekoa. Ez nuen azken talde hori ezagutzen, ez nuen talde hari buruzko erreferentziarik, eta... ustekabe galanta hartu nuen! Sinestezina zirudien Arratiako ibar kontserbadore honetan horrelako rock&roll talde bat sortzea: manera lotsagabeak, zuzeneko basatiak eta kalitatezko kantua.

2012an maketa argitaratu zuten eta ez zen oharkabean pasatu. Oihartzuna izan zuen zenbait musika argitalpenean, baita euskal rock zale mokofinen artean ere. Arratiako taldearen aurkikundea ez zen nolana hikoia izan, harri-garria baizik. Rock&roll zaharra eta letra garratzak, mimoz landuak. Beraien adina eta proposamena ez zetozen bat.

Zenbait lehiaketa irabazi ostean, iaz ibilbide diskografikoa hasi zuten lehenbiziko lan luzearekin, “Azote kaldüz!” diskoak zirrara sortu zuen. Rock klasi-ko onenaren esentzia biltzen du. *Rolling Stones* britaniarren aldaka kolpeak, eta *Lynyrd Skynyrd* estatubatuarren bizar luzeak. *Guns n’ Roses*, hard, glam eta punk izan zirenekoak; musikaren doinuaz gain, musika horren jarrerak ere aldea markatzen duelako.

Orain bigarren lanari aurre egiteko ordua iritsi zaie. Zeregin zaila, edo hori dio rockaren mitologiak. Horrela bada, Arratiako boskoteak gainditu egin du suzko frogara hori, eta nota ona ateratu du. Zinez mamitsua da “Ezkurrik onenak”.

“**Otso basati**” kantua AC/DCrena izan zitekeen gitarra riff batekin hasiko da. Baina minutuek aurrera egin ahala abestiak beste norabide bat hartuko du. *Black Crowes*... edo *Arratian Southern Rock*, eta Zalora Urainen (*Kokein*) ahotsa Chris Robinsonenaren lekuan. Sexu jokoa, lorerik ez, amodio ezinezkoa. Pello aho zikin eta Zalora hagin zorrotz.

Gaua, tabernetako lanbroa eta kaleetako kea. Hiriaren bakardadean beharrezkoa du amoranteak engainua. Estanda egiten du taldeak, eta bihotza erdiratzen du “**Gure bazterrak blues**” abestiak. Blues trinkoa da, konplexutasun handikoa. Ñabardura eta xehetasun ugari ditu bai musikari eta baita melodiari dagokionez ere. Errepikak borobilak dira, une gorenera daramate kantua eta elikatu egiten dute bai abeslariaren eta bai entzulearen itotasun sentsazioa.

“**Ardigaldua**” kantua “Azote kaldüz!” diskora garamatza bueltan. Umorea eta burla. *Gabba Gabba Hey* dio Pellok Joey Ramone bailitzan, baina *Rolling Stones*en erritmoan dihardu dantzan. Garapen instrumental latino batek egingo du salto bat-batean eta libre sentitzen dira Kristötarrak. Santana eta Hendrix gitar lehia lisergikoan. Zu handik eta ni hemendik, baina bata besteari begira.

“**Ezkurrik onenak**” da diskoari izena ematen dion kantua. Glam-rock jantzia da eta eraserki izaera du. Kanpai formako fraka dirdiratsuak lapurtu dizkiote Marc Bolani eta haren olgeta bere egiten dute arratiarrek. George Orwellen “Animal Farm” liburuko mandamenduak amorrutaz errezitatzen ditu Bart Farrell kaliforniarrek.

“**Aita saldu nauzu**” abestiak zerratzen du sarraila, eta *The Doors*en dramatismoa eta teatraltasuna dakartza burura. Errepikak epikoak dira eta western zapora lakarra daukate: traizioa, izerdia eta hautsa begietan. Gitarra trebeek konposizio korapilatsua ehuntzen dute abestiaren azken txanpan. Ematen du tenpesta ez duela amaierarik, baina piano baten barealdiak borbilduko du kantua... eta disko osoa.

Hemen dira, berriro ere, *Eskean Kristö*, eta pisuzko arrazoia dakarte esku artean. Ondo garbitu belarriak eta maximoan jarri soinu ekipoak. Odoloste erreak infernuko sugarretan, deabruaren ezterri urratua eta adar okerrak puntan. Uda honetan aprobetxatu ditzagun euren liturgia rockeroaz gozatzeko aukera guztiak.

Eskean Kristö taldeak “Ezkurrik onenak” diskoa Urdulizko Tio Pete estudioan grabatu du 2016ko otsailean. Igor Delgadok ekoiztu, nahastu eta masterizatu du Londreseko Marmitako Studioan.

Pello Artabe: ahotsa
Alex Harillo: gitarra
Aritz Ontalvilla: gitarra
Peio Artetxe: baxua
Imanol Arrese: bateria

kontratazioa: 659 975 820



Tel. 618 072 076-26 / www.baga-biga.eus / info@baga-biga.eus
221 P.K. 48100 Mungia (Bizkaia)

Izkander Fernandez (2016ko apirilaren 13a)